

KOMUNIKAZIO KANALAK

Bezeroekiko komunikazio ona izatea ezinbestekotzat hartzen dugu, baita bezero posible berrietara iristea, batez ere kontuan hartuz eskeintzen dugun esperientzia mugatua dela. Izan ere, pertsona bakoitzak arbaso eta sustrai batuk dituelako eta behin bere jatorriko herrialde guztiak ezagutu dituenean, ez du beste inora joateko aukerarik, bidaia errepikatzen ez badu. Beraz bezero posible berrietara iristeko zenbait kanal erabiliko ditugu.

Hasteko, Internet bidez saltzeko webgune bat sortuko dugu, batez ere Madril-etik urrun bizi diren bezeroentzat edo gure ofizinara etorri ezin direnentzat. Web-gunean baliozko proposamena eta eskeintzen ditugun zerbitzu desberdinak azalduko dira gehienbat. Izan ere, gure enpresak bidaiatzeko eta nongoa zaren ezagutzeko ADN probaz aparte, zure burua ezagutzeko, pertsona berriak ezagutzeko, arrazakeria desagertzeko, eguneroko bizitzaz ahaztu eta momentua bizitzeko ere balio duela erakutsiko dugu gure bezeroek izan dituzten esperientziak kontatuz. Beraz, web-gunean nahi duten bezerekin beraien bidaien argazkiak igo ditzateke, esperientzia nolakoa izan den eta zer ikasi duten azalyzko aukera izango dute. Horrela, gure zerbitzua erosteko zalantzan dauden pertsonen lagun diezaioke.

Gainera Instagramek eskeintzen duen publizitate aukera aprobetxatuko dugu. Izan ere, Sare-sozial honek hileroko 800 milioi baino erabiltzaile aktibo gehiago dituenaz, enpresak beraien zerbitzuak eta produktuak babesteko kanal propio zuzen ikaragarria. Horretarako ondorengo egingo dugu; enpresa perfil bat sortu eta gure zerbitzua eta balio proposamena azalduko duten argazki edo 'post'-ak igoko ditugu sarera, baita gure enpresarekin bezeroek egin dituzten argazkiak. Ondoren, web-gunean eta ofizinan gure kontuaren berri emango dugu; era honetan, bezeroek gure perfila nolakoa den eta beste pertsonen esperientziak nolakoak izan diren ikusi dezakete. Azkenik, dirua



inbertituko dugu publizitatean. Instagram-ek CPC (coste por clic)-ak eskeintzen ditu enpresak publizitatzeko eratzat, non, Instagramek zure perfila erakusten die erabiltzaileei, eta hauek beraien interesekoa dela uste badute edo atenzioa deitu badie 'clic' egingo dute. 'Clic' bakoitz hori da enpresak ordaindu behar duena. Beste publizitate kanalekin konparatua nahiko merkea da, baina prezioak etengabe aldatzen dira, gero eta enpresa gehiago publizitazen baitira. Gaur egun 'clic'

bakoitzaren prezioa \$0,70 eta \$1,00-en artekoa da. Horrekin batera, zure merkatu segmentua zein izango den aukera ematen dizu; zure enpresa ezagutuko duten bezero posibleen adina, sexua, herritartasuna, etb.



Hortaz aparte, *influencer* bat bilatuko genuke, bere jarraitzaileekin harreman estua duena. Bekin harremanetan jarriko ginateke bidaia bat oparitzeko eta horren trukean berak Instagramen eta Youtuben, guk prestatutako bidaian izan duen esperientzia konta dezan. Izan ere, gaur egun, sare-sozialetan ibiltzen diren pertsonak jarraitzen dituzten ospetsuen gomendazioei arreta asko prestatzen die.

Azkenik gure ofizina propioa izango genukeen Donostian, hau da, zeharkako kanal propio bat. Bertan, gure baliozko proposamenari buruzko informazioa eskeiniko da etortzen diren pertsona guztientzat, ADN-aren emaitzak fisikoki emateko eta dudak azaltzeko aukera eskeiniko da. Era hontan, bezeroarekin arreman estuagoa mantentzea ahalbidetuko litzateke eta konfiantza igorriko genuke.

Laburbilduz, *Instagram* eta *Influencer*-en bidez, gure enpresa ezagutzera emango dugu. Ondoren, Web-guneari eta ofizinari esker balio proposamenaren xehetasunak eta zerbitzu ezberdinak zeintzuk diren azalduko diegu bezeroei. Bertan gure zerbitzuak eros ditzakete haien gustokoak badira, hau da, ofizinan edo online. Jarraian ADN-a analizatzeko beharrezko material eta informazioa korreoz etxera bidaliko zaie bezeroei, laborategian aztertu eta erantzunak entregatuko zaizkie. Azkenik, bidaiatzea erabakitzen badute, bidaia prestatu eta telefono kontaktua emango zaie bidaian zerbait behar ezgero deitzeko aukera izan dezaten.